

## **Turismoan, ongizatean eta zerbitzu ekosistemikotan adituak diren 35 aditu baino gehiago Vicomtech-IK4n bilduko dira**

- **Vicomtech-IK4k eta BC3k, Klima Aldaketa Ikergai, turismoa eta aisiaren bidez ongizatea hobetzeko europar proiektu batean oinarritzen den TObeWELL kongresua hartuko dute, bertan Europako 25 herrialdeetako 60 ikerketa zentro eta unibertsitatek parte hartuko dutelarik**
- **Kongresua Vicomtech-IK4n (Donostia) ospatuko da eta turismoa pertsonen osasun eta ongizatea hobetzeko katalizatzailea nola izan daitekeen azalduko da bertan**

**Donostia, 2014ko irailak 9.** Vicomtech-IK4 zentro teknologikoak eta BC3k, Klima Aldaketa Ikergai, Euskadira erakarri dituzte nazioarteko 35 aditu baino gehiago turismoa eta aisiaren bidez ongizatea nola hobetu daitekeen analizatu eta aztertzeko. Kongresua TObeWELL da, “Turismoa, ongizatea eta zerbitzu ekosistemikoak” europar proiektuaren ingurukoa.

Erresuma Batuan, Holandan, Austrian, Belgikan eta Polonian bildu ondoren, orain Vicomtech-IK4 eta BC3k kongresua hartuko dute. Kongresuan aplikazio teknologiko berriak aztertuko dira turismoak pertsonen osasuna eta ongizatean baliabide naturalen erabilera iraunkorraren bitartez nola eragin dezaketen ikusteko.

Egungo gaixotasun asko pertsonen eguneroko ohituren emaitza dira. Pertsonen bizimoduak eragina dute obesitate, estres edota antsietatean. Proiektu honek

proposatzen dituen tresna eta aplikazio teknologikoen erabilgarritasunak eguneroko jarduna monitorizatu eta kudeatzea ahal egingo du, honela bakoitzaren osasun eta ongizatearen gainean kontrol eta ardura handiagoak izango direlarik. Era honetara osasun sistema tradizionalen eraginkortasuna hobetuko da banaka zenbait gaixotasun kroniko kudeatuz.

Proiektu honen emaitzak edozein pertsonari (paziente edo pertsona osasuntsu) zuzenduta egongo dira. Osasunaren eta ongizatearen kudeaketa hurbilketa holistiko batean oinarrituko da, pertsona garapenen muinean jarrita bizimodu osasuntsu, elikadura ohitura eta ongizatearekin loturiko jarduerak barne dituelarik.

Steven Graham, Exeter unibertsitateko osasun eta ongizateko irakaslea, Noam Shoval, irakasle elkartua Jerusalengo Unibertsitatean, edota Benigno Amor, AEITEGAL Galizako kluster termalaren eta Galizako Bainuetxeen Elkarteko gerentea bezalako nazioartean ohorea duten adituek izango dira eta turismoak orain arte erlazionatu edo aztertu gabeko arloekin (aisia, ongizatea, osasuna eta zerbitzu ekosistemikoak) duen erlazioa azalduko dute.

Horretaz gain, kongresuak Europako eskualde ezberdinetako ikerkuntza eta politikaren arteko ezagutza transferentzia osatu eta bultzatzeko balioko du ezagutza arloei esker. Helburu nagusia Europako eskualde ezberdinetan bizi diren pertsonen bizimoduak hobetzea da.

25 herrialde ezberdinetako 60 ikerkuntza zentro eta unibertsitatek parte hartzen dute proiektu honetan Viocmtech-IK4rekin eta BC3, Klimea Aldaketa Ikergairekin.

Proiektu handi honen emaitza pertsonen ongizatea hobetzeko turismoaren eragin, erabilera eta onuren inguruko politika txosten eta gomendioen egitea izango da.

### **Vicomtech-IK4**

Vicomtech-IK4 ikerketa aplikaturiko zentroa da. Bere lana ordenagailu bidezko grafiko interaktibo eta multimedia teknologiarazuzentzen du, bereziki, ikus-interakzio eta komunikazioen teknologietara.

Estatuan aldi berean I+G+b kudeaketa UNE 166002:2006 eta ISO9001:2008 kalitate kudeaketa agiriak dituen lehen zentroetakoa da Vicomtech-IK4, honela ikerkuntzaren kalitatearen abangoardian dagoelarik eta bere prozesuen kalitatearekiko duen konpromisoa argi geratzen delarik.

Bere jarduera guztiak I+G+b kudeaketa sistema baten bidez araututa daude, adibidez emaitzen etengabeko hobekuntza eta neurketa, berrikuntza teknologikoko prozesuen optimizazioa baita ezagutzaren transferentzia eta sorkuntza, honela kalitate handiko metodologiak dituela bermatuz..

### **BC3**

BC3, Klima Aldaketa Ikergai, diziplina anitzeko ikerkuntza zentroa da. 35 ikertzailek osatzen dute zentroa, guztira 12 herrialdeetatik datoz eta Anil Markandya da buru. 2008.an sortu zen, Eusko Jaurlaritzako BERC programaren baitan eta Euskal Herriko Unibertsitatearen bermearekin, klima aldaketaren jatorri eta ondorioak epe luzerako ikerketaren bikaintasuna bermatzeko.

BC3ko profesionalek burutzen duten ikerketa eta parte hartzen duten zientzia-elkarlanerako sareek zentroa mundu mailan erreferentzia bezala sendotzea ahal egin du. Oraindik orain ICCG-ak BC3 Klima Aldaketaren ekonomia eta politikaren munduko eragin handiko bigarren Think Tank bezala igarri dute.

## VKComunicación

**Informazio gehiagorako:**

**Patricia Loredó**

**Tel.: 944 01 53 06 / Mugikorra: 629 74 90 47**

**E-posta: [patricia@vkcomunicacion.com](mailto:patricia@vkcomunicacion.com)**